

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Hamar langile baino gutxiago dituzten enpresetako enplegua mantentzeko udal laguntzen programaren 2020ko deialdi publikoa eta oinarriak arautzaileak

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2019ko abenduaren 23ko ALHAOn — 147. zk. — argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke — www.vitoria-gasteiz.org —, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten enpresek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2020ko ekainaren 5ean egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak hamar langile baino gutxiago dituzten enpresetako enplegua mantentzeko udal laguntzen programaren 2020ko deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak.

Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, herritarrak jakinaren gainean egon daitezten:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

Hamar langile baino gutxiagoko enpresetan enplegua mantentzeko laguntzak.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Vitoria-Gasteizko udalerrian enplegua mantendu dadila sustatzera bideratutako laguntza ekonomikoak emateko —elkarren arteko lehia baliatuz— baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea.

Enpresa eta autonomoei zuzenduta daude laguntzak, jarduera ekonomiko bat dutelarik, eta gehienez 10 kontratatu, eta Covid-19ak eragindako krisiak eragin dielarik, non eta:

— alarma-egoera deklaratu aurreko egunean edo aldi baterako enplegu-erregulazioa eskatu aurrekoan beren langile ziren eta langabezia dauden pertsonak lehengo baldintzetan edo hobetan kontratatzen dituzten,

— edo, alarma-egoera deklaratu edo aldi baterako enplegu-erregulazioa eskatu aurrekoa baino lanaldi txikiagoarekin pertsona horiek berriro kontratatu dituztelarik, alde aurreko lanaldia berreskuratzen edo behintzat handitzen duten, une hartan zituzten baldintza beretan edo hobekin.

Kasu batean nahiz bestean, gutxienez lau hilabetez eutsi beharko zaie kontratu berriei edo lanaldi-igoerei, baldintza berberetan.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

3. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak

Enpresek —forma juridikoa edozein izanik ere, ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilak barne— eta langileak kontratatuta dituzten autonomoek jaso ahal izango dituzte programa honetako dirulaguntzak, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Beren jarduera ekonomikoa Vitoria-Gasteizko udalerriko lantoki batean burutzea.
- Egoitza soziala Vitoria-Gasteizko udalerrian edukitzea.

– Gehienez hamar kontratatu edukitzea.

– Covid-19ak sortutako krisiak eragin diela egiaztatzea:

a) Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatu zuen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren ondorioz establezimendua itxi behar izan zelako,

b) 2020ko apirilean gutxienez ehuneko 75eko fakturazio-murrizketa izan zutelako, 2019ko hileko batez besteko fakturazioaren aldean. Eskabidea egiten duen enpresa edo autonomoak urtebete baino gutxiago badarama alta emanda, alarma-egoera deklaratu aurreko jarduera-al-dian fakturaturako batez besteko zenbatekoa aintzat harturik egingo da diru-sarrerren murrizketa egiaztatzeko alderaketa.

Autonomoen kasuan, martxoaren 17ko 19/2012 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan zehaz-ten den aparteko prestazioaren onespeneren bitartez egiaztatu ahal izango da beherakada hori.

Beste edozein kasutan, kontabilitate-liburuen, zerga-aitorpenaren edo aldi baterako enple-
gu-erregulazioaren onarpenaren bitartez.

– Enpresa edo autonomoak, alerta-egoera bukatu edo aldi baterako enplegu-erregulaziotik atera ondoren, kaleratzearen edo kontratu-bukaeraren ondorioz enplegua galdu zuten pertsona berak kontratatzea, edo Covid-19ak sortutako krisiaren eraginez murriztu zitzaizen lanaldia berreskuratu edo handitzea horiei. Dirulaguntza honi dagozkionetarako, alarma-egoera deklaratu edo aldi baterako enplegu-erregulazioa eskatu aurreko egunean plantillako langile zirenak bakarrik hartuko dira kontuan, orduan enplegua galdu zutenak nahiz berriro kontratatzean lanaldi-murrizketa izan zutenak.

– Kontratazio eta lanaldi-berreskurapen edo -igoera horiek gutxienez lau hilabetez mantentzea.

– Dirulaguntza jasotzen duten kontratuetako soldatak alarma-egoera deklaratu edo aldi baterako enplegu-erregulazioa eskatu aurreko egunekoak berdinak edo hobeak izatea, baita gainerako lan-baldintzek ere.

– Lehendik zegoen plantilla garbiari eutsi beharko zaio gutxienez lau hilabetez, kontratu berria egiten edo lanaldia berreskuratu edo handitzen denetik.

– Aldi baterako enplegu-erregulazioan egon diren enpresen kasuan, dirulaguntza-eskabidea egiten dutenerako egoera horretatik aterata egotea.

– Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak be-teta eduki beharko dituzte dirulaguntza-deialdi publikora aurkezten diren enpresek. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebehar hori —dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean—.

– Administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko aukeratik apartatua ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren menpe ere, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-arrazoiengatiko diskriminaziotzat jotzen diren egintzen ondorio direnak barne.

4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

Alarma-egoerak edo aldi baterako enplegu-erregulazioak iraun bitartean enpresan zuten enplegua galdu zuten pertsonak kontratatzea, baita aldi horren aurreko lanaldia berreskuratu edo handitzea ere.

Alarma-egoera deklaratu edo aldi baterako enplegu-erregulazioa eskatu aurreko lan-bal-dintza berak —soldata eta lanaldi-portzentajea— edo hobeak eduki beharko dituzte kontratuak, dirulaguntza jasotzekotan. Gutxienez ehuneko 50eko lanaldiko kontratuetarako bakarrik emango da dirulaguntza.

Alarma-egoera bukatu edo enpresa aldi baterako enplegu-erregulaziotik ateratzen den egu-naren biharamunetik aurrera —gehienez bi hilabeteko epean— egiten diren kontratazioak diruz lagunduko dira, baita aurreko lanaldia berreskuratzea edo handitzea ere.

5. oinarria. Dirulaguntzaren xede izango ez direnak

— Enpresaburuen ezkontideei, ondorengoei edo bigarren mailara arteko — hori barne — odol- edo ezkontza-ahaidetasuna duten senideei — edo horien parekoei, izatezko bikoteen kasuan — eta enpresako zuzendaritza-karguetan diharduten edo administrazio-organoetako kide direnei eragiten dieten kontratazioak edo lanaldi-handitzeak.

— Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluko debeku-egoeraren batean dauden enpresa edo autonomoak.

— Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta haiekin loturarik duten edo haien mendeko diren entitateak.

— Irabazi-asmorik gabeko elkarteak, fundazioak eta, oro har, entitateak, langile autonomo laguntzaileak eta ondare-sozietate eta finantza-erakundeak.

— Vitoria-Gasteizko Udalak nahiz beraren enpresa edo erakunde autonomoek adjudikatutako kontratuak dituzten enpresa eta autonomoak.

— Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 2.1 artikuluan jasotako izaera bereziko lan-harremanak.

Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudian ezarritako minimis erregimenaren mendeko laguntzak direnez, ezin zaizkie sektore hauetako enpresei eman:

1. Arrantza eta nekazaritza, Kontseiluaren 104/2000 Erregelamenduaren (EE) arabera.

2. Tratutuko I. eranskineko zerrendan ageri diren nekazaritza-produktuen produkzio primarioa.

3. Beste herrialde batzuetarako edo estatu kideetarako esportazioekin erlazionatutako jarduerak, baldin eta laguntza banaketa-sare bat osatu eta funtzionatzearekin lotuta badago, edo esportazio-jarduerarekin lotutako beste esplotazio-gastu batzuekin.

4. Ikatza, 1407/2002 Erregelamenduan (EE) definitutakoaren arabera.

6. oinarria. Baliabide ekonomikoak

Aurrekontu-zuzkidura, guztira, laurehun eta berrogeita hamar mila eurokoa izango da —450.000,00 euro—, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren aurrekontuko 2020: 08 23 2411 4 8967 aurrekontu-aplikazioaren kontura —Enplegu-egonkortasunerako laguntzak—.

Partida horretan hasiera batetan gaitutako zenbatekotik eta gerora 2020/0823.2411.480.20 —Eskualdeko plan - Udalaren ekarpena— bertara egindako 50.000,00 euroko kreditu-transferentziatik sortua da aurrekontu-zuzkidura.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia dela medio zuzkidura hori handitzerik izango da udal sail horrek kudeatzen duen partidaren batean soberako krediturik badago, interes publiko, ekonomiko eta sozialeko arrazoiak tarteko.

Izan ere, dirulaguntza hauen aparteko izaera berorien arrazoi diren gertaeren zer-nolako berezi, bakar eta aurreikusezinei zor zaie.

7. oinarria. Eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldeztatik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Deialdia indarrean jartzen delarik hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2020ko irailaren 11n bukatuko.

Enpresa edo pertsona interesdunek eskabidea aurkezteak, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

8. oinarria. Ebazteko epea

Gehenez hiru hilabeteko epean emango da ebazpena, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik kontatuta.

9. oinarria. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauen arabera balioetsiko dira eskabideak, puntuaziorik handienetik txikienera arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko:

Balioespen-irizpideak:	Puntuak
Kontratuen ezaugarriak	
Lanaldiaren ehuneko 100ean berreskuratutako kontratuko	50 puntu
Aurreko lanaldiaren ehuneko 50etik beherako kontratuko	20 puntu
Mugarik gabeko kontratuko	30 puntu
Pertsonen ezaugarriak:	
55 urtetik gorakoak (kontratua egin edo lanaldia handitzen den datan)	30 puntu
Emakumeak	10 puntu.
Gehenez lortu daitezkeen puntuak	120 puntu

10. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzea

2.000,00 euro, egiten den lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialen kasuan, lanaldiarekiko proportzionala izango da laguntza.

Lanaldi partzialak berreskuratzen direlarik, lanaldi-igoerarekiko proportzioan emango da laguntza.

Dirulaguntza jaso lezakeen gutxieneko lanaldia ehuneko 50ekoa da.

Enpresa bakoitzeko gehieneko laguntza ekonomikoa: 6.000,00 euro.

Aurkezten diren eskabideak alderatu eta lehentasun-hurrenkera ezartzen delarik, erabilgarri dagoen saldoa nahikoa ez bada onetsitako azken dirulaguntza ordaintzeko, saldoa guztiz bukatu arte geratzen den kreditua ordaindu ahal izango zaio horri.

11. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea

Ordainketa bakarrean ordainduko dira laguntzak, aurrerakin gisa, alarma-egoera bukatu edo enpresa nahiz autonomoak bere jarduerari berriro ekin ondorengo lau hilabeteetan enpleguei eutsi zaiela egiaztatu ondoren, baita betekizunak betetzen direla ere, laguntza ematea ekarri duten baldintzak egiaztatzeke ezar litezkeen bestelako kontrolak gorabehera.

12. oinarria. Enpresa edo entitate onuradunen betebeharrak

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan xedatutakoa gorabehera, betebeharrak hauek izango dituzte enpresa edo autonomo onuradunek:

1. Laguntza emateko arrazoi izan den jarduera burutzea eta burutu dela egiaztatzea, hau da:

– alarma-egoera deklaratu aurreko egunean edo aldi baterako enplegu-erregulazioa eskatu aurrekoan beren langile ziren eta gerora enplegua galdu zuten pertsonekin kontratu berriak formalizatzea, enplegu- eta soldata-baldintza berberetan edo hobeetan,

— alarma-egoera deklaratu aurreko egunean edo aldi baterako enplegu-erregulazioa eskatu aurrekoan zituztenak baino lanaldi txikiagoekin kontratatu direnen lanaldi-berreskurapen edo -igoerak formalizatzea, aldeztuz aurretik zuten lanaldia berreskuratu edo gutxienez lanaldia handitzeko.

2. Kasu batean nahiz bestean, gainerako lan-baldintzak mantendu edo hobetu beharko dira, hala nola alarma-egoera deklaratu edo aldi baterako enplegu-erregulazioa eskatu aurretik zuten kontratu-mota eta soldata.

3. Vitoria-Gasteizko Udalaren egiaztatze-ekintzen eta bertako kontu-hartzaile nagusiaren finantza-kontrolerako ekintzen mende jartzea, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

4. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztea.

5. Beren kontratua dirulaguntza honekin lotuta dagoen pertsonari zirkunstantzia horren berri ematea.

6. Zerga-betebeharrak bete eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu direla egiaztatzea.

7. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari beharrezkotzat jotzen duen informazio eta agiri osagarri oro ematea, deialdi honetan jasotzen dituzten dirulaguntzak ulertu eta ebaluatzeko.

8. Udal dirulaguntza honetarako aurkeztutako kontzeptu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero, organo emaileari jakinaraztea.

9. Dirulaguntza norengatik ematen den, pertsona horiei baldintza berberak mantentzea gutxienez lau hilabetez, eta dirulaguntza ematea ekarri duten betebeharrak eta baldintzak betetzea, eta, aldi horretan, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta edukitzea.

Baldin eta, dirulaguntza norengatik ematen den, pertsona horrek baja hartzen badu enpresan aldi horretan —borondatezko baja, heriotza, ezintasuna edo erretiroa—, betebeharrak berberetan edo hobeetan, 15 eguneko epean, aurreko kontratuaren baja-egunetik. Ordezkapen bakarra onartuko da. Dirulaguntza ematea ebatzi aurretik gertatzen bada baja, aurkeztutako eskabidea bertan behar geratuko da, baldin eta ez bada 15 eguneko epean ordezkatzen, atal honetan jasotako baldintza berberetan.

Adierazi bezala ordezkatzen ez bada, itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza, dagozkion interesekin. Kontratuagatik dirulaguntza eman den pertsonaren batek baja hartzen badu enpresan —borondatezko baja, heriotza, ezintasuna edo erretiroa—, eta 15 eguneko epean dirulaguntza eman deneko betebeharrak berberetan dituen beste pertsona bat kontratatzen ez bada, Gizarte Segurantzaren baja ematen zaion egunetik eta baldintzei eutsi behar zitzaizkien lau hilabeteke epea bete arteko aldiari dagokion dirulaguntza itzuli beharko da.

10. Kontratu berria egin edo lanaldia handitu ondorengo lau hilabeteetan plantilla garbiari eutsi zaiola egiaztatzea.

11. Jasotako funts publikoak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko lege orokorraren 37. artikuluan adierazten diren kasuetan.

13. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateraezintasuna

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak bateraezintasunak izango dira kontzeptu berengatik eta helburu berarekin beste administrazio publiko edo entitate publiko nahiz pribatu batzuek ematen dituzten dirulaguntza edo laguntzekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu.

14. oinarria. Nahitaezko agiriak

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira, nahitaez:

— Eskabidea, behar bezala beteta.

— Entitate eskatzailea egiaztatu eta identifikatzeko agiriak:

1. NAN edo AIZ, autonomoen kasuan, edo enpresaren IFZ.

2. Enpresa eratzeko eskritura, enpresaren estatutuak eta legezko ordezkariaren ahalmenaren egiaztapena. Geroko aldakuntza-eskiriturak, enpresaren ordezkariari eta helbide sozialari eragiten dietelarik.

3. Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.

4. Ofizios eskatzeko baimena ukatuz gero, Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiri eguneratuak —Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dauden ofizios egiaztatuko da—.

— Covid-19aren krisiak enpresaren edo autonomoaren jarduerari eragin diola egiaztatzeko dokumentazioa:

1. Halakorik jaso bada, Covid-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratzaren eraginez beren jarduera bertan behera utzi behar izan duten pertsonentzako aparteko prestazioa —martxoaren 17ko 19/2012 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan aratua— eman zaieneko ebazpena.

2. Hala egokitu bada, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatu zuen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren ondorioz edo agintari eskudunaren aginduz establezimendua itxi izanaren egiaztapena.

3. Halakorik izan bada, aldi baterako enplegu-erregulazioaren ebazpena.

4. Gainerako kasuetan, 2020ko apirilean fakturazioa —2019ko hileko batez bestekoaren aldean— gutxienez ehuneko 75 erori zela justifikatzen duen oroïtidazki labur bat, fakturazio-murrizketa hori azaltzen duena, agiri hauek erantsita:

— BEZaren 2019ko aitortpenaren kopia, eta BEZaren 2020ko lehen hiruhileko aitortpenarena.

— edo 2019ko galera eta irabazien balantze edo kontuaren kopia, eta galdatutako aldi-koarena, edo 2019ko inbentarioen liburuaren eta urteko kontuen kopia, eta galdatutako aldiko eguneroko liburua.

— kontabilitatearen edo zergen arloko beste edozein egiaztigiri, galdatutako aldikoa.

5. Kasua bada, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari aldi baterako enplegu-erregulazioaren bukaera komunikatu izana:

— Kontratazioa edo lanaldiaren berreskurapena edo igoera egiaztatzen duen agiria.

1. Langilearen nortasun-agiria edo AIZ.

2. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria: kontratazio-datako plantilla edo lanaldi-igoera.

3. Enprearen aurreko kontratuta, enplegua galdu zenean indarrean zegoena.

4. Enplegua galdu aurreko hileko nomina, eta ordainketa-egiaztigiria.

5. Gizarte Segurantzari baja komunikatzea.

Kontratu berria egin bada:

1. Aldeek sinatutako lan-kontratu berriaren kopia, enplegu-zerbitzuei kontratazio hori bide telematikoz jakinarazi izanaren egiaztigiriarekin batera.

2. Dirulaguntzaren xede diren langileen lan-bizitza, kontratu berria egin edo aldatuz gerotiko datarekin.

3. Langileen zerrenda izenduna, berriro kontratatzen den pertsonaren kontratua bukatu zen hilekoa eta aurrekoa.

Lanaldia berreskuratu edo handitu bada:

1. Enpresak eta langileak sinatutako idazkia, izandako aldaketak jasotzen dituen, baita Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari bide telematikoz egindako komunikazioa ere.

2. Lanaldia berreskuratu edo handitu aurretik indarrean zegoen kontratua.

3. Afiliatuaren lan-bizitza.

4. Langileen zerrenda izenduna, lanaldi-murrizketa egin den hilekoa eta aurrekoa.

5. Aldaketaren aurreko hileko nomina, eta ordainketa-egiaztagiria.

Vitoria-Gasteizko Udalak justifikatutzat jo dezan ordaindutako dirulaguntza, justifikazio-agiri hauek aurkeztu beharko ditu entitate onuradunak kontratu berria egin edo lanaldia berreskuratu nahiz handitzen denetik 4 hilabetera:

1. Afiliatuaren lan-bizitzaren txostena.

2. Kontratu berria egin edo lanaldia handitu ondorengo 4 hilabeteetako nominak eta ordainketa-egiaztagiriak. Langileak sinatuta eta enpresak zigilatuta egon beharko dute nominak. Nominen ordainketa-egiaztagiriak banku-entitateak sinatuta egon beharko dute, baldin eta banku-transferentziaren bidez egin bada. Beste bitartekoren bat baliatuz ordaindu bada, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, enpresak hileko kopuruak ordaindu dituela, enpresak berak sinatuta eta langileak sinatuta, kobratu izanaren erakusle.

3. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria: kontratu berria egin edo lanaldia berreskuratu nahiz handitu ondorengo 4 hilabeteetako batez besteko plantilla.

4. Ofizioz eskatzeko baimena ukatuz gero, Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiriak —Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dauden ofizioz egiaztatuko da—.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri (www.vitoria-gasteiz.org), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialaren barruan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoa aplikagarri izango da.

Bide hauek baliatu ahal izango dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztea. Proiektu teknikoak eta gainerako agiriak euskarri digitalean aurkeztu ahalko dira, formatu hauetan: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak. Halakoetako artxibo grafiko eta testu-artxiboek pdf formatuan egon beharko dute, eta ez dute karpetarik eduki beharko, baizik eta agiri guztiak maila berean bilduta. Dokumentazioa euskarri digitalean aurkezten delarik, dagokion erantzukizunpeko aitorpena erantsi beharko zaio —Udalaren webgunetik deskarga daitekeen inprimakia baliatuz—. Eskabideak behar bezala izenpetuta edo ontzat emanda egon beharko du. Euskarri digitala ez zaio itzuliko entitate eskatzaileari.

Dokumentazioa paperean aurkeztea: Paperean aurkezten den dokumentazioak DIN A4 edo DIN A3 tamaina eduki beharko du, eta, herritarrei laguntzeko bulegoko digitalizatzeko errazte aldera, orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe. Eskabideari paperezkoa ez den euskarriaren batean dagoen dokumentazioa erantsi behar bazaio, eta, beraz, digitalizatzerik ez badago, karpeta batean aurkeztu beharko da, edukiaren aurkibidearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, non zehazten den zein udal zerbitzuri dagokion deialdiko dirulaguntzen lerroa.

Egoitza elektronikoaren bitartez: eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahal izango da, erregistro elektronikoaren bitartez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org> helbidean ezarritakoari jarraituz.

15. oinarria. Akatsak zuzentzea

Dirulaguntza-eskabidea ez badago behar bezala formalizatuta edo daturen bat falta badu, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, akatsa konpontzeko eskatuko zaio pertsona edo entitate eskatzaileari, eta orobat ohartaraziko hala egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela besterik gabe.

16. oinarria. Prozedura

16.1. Prozedura.

Dirulaguntzak emateko elkarren arteko lehiaren prozedura baliatuko da, dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Dirulaguntzak emateko alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak —9. oinarrian ezarritako balioespen-irizpideak aintzat harturik—, hartara lehentasun-hurrenkera ezartze aldera, eta puntuaziorik handienak lortzen dituzten eskabideei adjudikatuko zaizkie dirulaguntzak.

Deialdirako dagoen kreditua nahikoa bada oinarrietan finkatutako betekizunak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko, bazter utziko da horien arteko lehentasun-hurrenkeraren irizpidea, eta guztiak izango dira onuradun.

Eskabideari oinarri hauetan galdatzen den dokumentazio guztia eransten zaizkiolarik finkatuko da lehentasun-hurrenkeran dagokion lekua.

Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, balioesteko atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko, hurrenkera honen arabera:

1. Lanaldiaren ehuneko 100ean berreskuratutako kontratua.
2. 55 urtetik gorakoa kontratatzea.
3. Kontratu mugagabea.
4. Emakume bat kontratatzea.

Berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideak Vitoria-Gasteizko Udaleko sarrera-erregistroan zein egunetan eta zein ordutan aurkeztu ziren kontuan izanik.

16.2. Instrukzioa eta ebazpena.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Aztertze-, balioztatze-, hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratuko da horretarako, saileko zuzendariak, Merkataritza Zerbitzuko eta Enpresa Zerbitzuko buruek eta Prestakuntza eta Enplegu Ataleko eta Ekonomia Sozialaren Ataleko buruek osatua. Dirulaguntzak emateko orduan edozein zalantza argitu edo edozein erabaki hartzeko eskumena izango du batzorde horrek.

Eskabideak jaso eta —betebeharrak betetzen diren egiaztatu ondoren— tramitatzea onartzen delarik, balioespen-txosten teknikoa egingo da, eta, hautatze- eta jarraipen-batzordeak proposamena egiten diolarik, Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu eskabideak, horretarako eskumena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena jakinarazteko komunikabideak ALHAO eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa izango dira.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko erabakiak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organoari zuzenduta, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Aurrekontu-kreditua agortzen delarik, eskatzaileei ez zaie eskatuko osorik ez dauden eskabi-deak zuzentzeko dokumentaziorik.

17. oinarria. Dirulaguntzen berri ematea

Oro har, ematen nahiz ukatzen diren dirulaguntzen zerrenda ALHAOn eta Udalaren webgunean argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazten direlarik, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoia ere.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak.

18. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Diruz lagundutako programa edo jardueran funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, baimena eskatu beharko zaio Vitoria-Gasteizko Udalari, berariaz eta alde zuzetik. Berariaz baimenduta baino ezin izango da gauzatu aldaketa. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu, aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da.

19. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko suertatzen diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egin ahal izango ditu, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote enpresa onuradunek.

20. oinarria. Laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona edo enpresa onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu. Ezin izango da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzeko prozedura baten ondorioz zordun bada ere.

Dirulaguntza eman zuen organoak izango du hura itzularazteko dosierra abiarazi eta, behar izanez gero, hala galdatzeko erabakia hartzeko eskumena.

Ofizios nahiz organo eskudunak edo interesdunak eskatuta abiarazi ahal izango da prozedura.

Horretarako probidentzia ematen delarik, dirua itzularazteko prozedura abiarazi dela jakinaraziko dio Udalak dirulaguntzaren onuradunari, baita arrazoiak zein izan diren ere, eta entzunaldia eskainiko dio, egokitzen dituen alegazioak egin eta bidezkotzat jotzen dituen agiri edo justifikazioak aurkez ditzan, hamabost eguneko epean.

Alegazioak jasotzen direlarik nahiz halakorik jaso gabe igarotzen delarik epea, ebazpen arrazoitua emango du Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak, eta aurkez daitezkeen errekurtsoen berri adieraziko. Laguntza itzularazteko prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da.

Ebazpenean urraketaren bat izan dela adierazten bada, galdutzat joko da laguntza jasotzeko eskubidea, eta, horrenbestez, oker jasotako dirua Udal Diruzaintzari itzultzeko obligazioa izango da; bi hilabeteko epean egin beharko da hori, jakinarazpena jasotzen denetik.

Borondatezko aldiko epetzat joko da epe hori.

Aurreikusitako epean itzultzen ez bada, premiamendu-prozedurari ekingo zaio, aplikagarri diren lege-araudiei jarraiki.

Itzularazteko prozedura administrazio arau-hauste baten ondorioz abiarazia bada, organo eskudunari jakinaraziko zaio, aplikagarri den prozedura zigortzaileari ekin diezaion.

21. oinarria. Indarrean jartzea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean laguntzak emateko deialdi eta oinarri hauek.

22. oinarria. Konfidentzialtasun-klausula

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legea Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudia, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 11n

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI

I. eranskina: eskabidea eta zinpeko aitortpena egiteko orria

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/89/03/88903.pdf>